


KORRONTE ELEKTRIKOAREN ERABILERA

4.1 Korrontearen efektu termikoa

Hari batetik korrante elektrikoa igarotzen denean, haria berotu egiten da. Higitzen ari diren elektroiek haria osatzen duten partikulekin talka egiten dute eta Joule efektua gertatzen da, hau da, energia elektrikoa energia termikoa bihurtzen da.

Ondorio negatiboak: Energia elektriko termikoa bihurtzen denean korrantea daramaten hariak berotu egiten dira.

Ondorio positiboak: Etxetresna elektriko gehienak Joule efektuaren alde positiboa erabiltzen dute.



4.3 Korrontearen argi-efektua

Goritasun-lanparak

Metalak asko berotzen direnean, argia igortzen dute (goritu egiten dira). Goritasun-bonbiletan, harizpiaren metala 2.200 °C inguruko tenperatura iristen da bertatik korrante igarotzen denean, eta argia sortzen da.

Harizpiaren atomoek argia igortzen dute. Energia gehiena ez da aprobetxatzen, gehiena bero bihurtzen delako, beraz ez da oso eraginkorra.



Lanpara fluoreszenteak

Lanpara fluoreszenteetan gas bat ionizatzen da, gas horrek elektroiek askatzen ditu eta elektroiek argi ultramorea igortzen dute. Argi horrek talka egiten du lanpararen hormekin, eta hormak substantzia fluoreszente batez estalita daudenez, argi ikusgaia igortzen da.



Kontsumo txikiko lanpara batek potentzia elektriko bereko goritasun-lanpara batek baino bost aldiz gehiago igortzen du.

LED diodoak


Elektroiak energia maila batetik bestea erortzen dira eta energia-aldea argi moduan igortzen dute. Diodoak eraginkorragoak dira goritasun-lanparak edo lanpara fluoreszenteak baino.



4.4 Korrontearen efektu magnetikoa

1820an Ikusi zuten korrante elektriko batek gertu zegoen iparrorratz baten orratza higiarazi zuela. Geroago egiaztatu zen magnetismoak elektrizitatea ere sor dezakeela.


Korrante elektrikoak imanen antzera jarduten du. Imanak higituz elektrizitatea sortu ahal izan zen. Efektu magnetikoa eguneroko jardunean erabiltzen dugun elektrizitate zati handi bat da



4.5 Korrontearen efektu mekanikoa. Motor elektrikoa

Korrante elektriko batetik gertu imanak jartzen baditugu, higidura sor dezakegu.

Motor elektrikoetan: haril batetik korrante elektrikoak igaroarazten da, eta korrante horrek iman baten antzera jarduten du; harilaren aldamenean imanak jartzen baditugu, harila biratu egingo da, eta motorraren ardatza ere bai.



4.6 Korrontearen efektu kimikoa

Korrante elektriko objektu metalikoa beste metal baten geruza fin batez estaltzeko aprobetxa daiteke. Teknika hori galvanoplastia izena du.

Funtzioak:

- Gainazal metalikoak korrosiotik babestea.
- Pieza metaliko bat estalki erakargarri batez apaintzea.
- Propietate elektrikoak edo optikoa hobetzea.

